

Ez ohiko udal batzarra ostiralean

Udalak Loidi Barrengo proiektua eta euskara plangintza onartu ditu

2008-2012 artean Lasarte-Oria Euskara biziberritzeko Plan Estrategikoa, Hiri Plangintzako Aholku-Batzordea sortzeko arauak eta Loidi-Barren auzoan babes ofizialeko etxebizitzak, aparkalekuak eta merkatalgune bat egiteko

egitasmoa martxan jartzeko baldintzak ontzat eman zituen ostiralean udal-batzak. PSE-EE, EAJ-PNV eta EB-Berdeak eman zioten baiezkua ostiral goizean ohiz kanpoko udal batzarrean jorratu ziren hiru proposamenei.

TXINTXARRI

Loidi-Barrenen babes ofizialeko etxebizitzak egiteko proiektua aurrera eramateko baldintzak onartu egin ziren ostiraleko ezohiko udal batzarrean PSE-EE, EAJ-PNV eta EB-Berdeak alderdietako ordezkarien botuekin. Beraz etxagintza enpresek orain bi hilabeteko epea izango dute beren eskaintzak egiteko eta 2008 bukaeran ez bada 2009 urte hasieran hasi daitezke lanak. Interesatuak dauden herritarrak, aldiz, udazkenera arte ez daukate izena ematerik. Hau azpimarratzeko eskatu du Udalak.

Oposizioko taldeek kritika egin zuten babes ofizialeko etxebizitzak egiteko egitasmoa, aparkaleku eta merkatalgunearen ekimen pribatuarekin batera aurkeztu dutelako. Beraz, etxebizitzek gain, lau pisutako eraikin "singular" edo berezia eraikiko dela aurreratu zuten Iñaki Mujika alkateordeak. Hiru pisutan aparkalekuak jarriko dira eta beste solairuan Merkatalgunea.

Gaixo den Ana Urchueguiaren ordezkari adierazi zuenez, batetik gazteen arazo nagusiari egingo zaio aurre, babes ofiziala duten 100 etxebizitza eraikitik, bestalde, Lasarte erdiko aparkaleku arazoari ere bai, hiru pisutako parkina irekitzeki eta azkenik herriko ekonomiaren motore izango den merkatalgunea ere eraikiko da. Bertan herriko merkatariek denda jar-



Legution hildako Goardia Zibilaren omenezko minutu bateko isilunearekin hasi zen udal batzarra.

tzeko lehenasuna izango dutela adierazi zuen Mujikak.

Aparkalekuetako batzuk salgai jarriko dira eta beste batzuk merkatalgunearen erabilzaileren zerbitzuan. Dena den, eraikin berrien funtzionamendua erabat zehaztu gabe dago eta jarraipena eskatuko du Mujikak adierazi zuenez. Egitasmo honen barruan da Sasoeta inguru osoa txukuntzea ere. Trafikoan aldaketa batzuk izango dira eta atsedeen guneak jarriko dira.

EAEk babes ofizialeko etxeen egitasmoa bakarrik aurkeztu balitz baiezkua botua emango zuela argitu zuen baina dena batera aurkeztu


denez penaz baina ezezkua eman zuen. Josu Goikoetxeak harridura azaldu zuen, EBkoak eta EAJkoek ados ez izan arren aldeko botua eman zutelako, hau da, hirigintza batzordean aurka izan eta batzarrean alde.

Atzerapena

EAJko Estitxu Alkortak azaldu zuen derrigorlari ikusi direla eta baiezkua eman dutela etxebizitzaren egitasmoa gehiago ez atzeratzeagatik. Dena den, hainbat kritika luzatu zizkion Udala Gobernuari, batetik etxebizitza batzuek ez direlako salduko, hau da, erosleek 75 urterako erabilpen eskubidea izango dute eta bestalde,

eremu publikoak izanik, ez zelako egitasmoa hainbeste atzeratzeko arrazoirik. "Kuriosoa da baina inguruan salmentan libreko etxeak babes ofizialekoak baino lehenago egin dirala". Jakina da babes ofizialik gabeko 176 etxebizitza egin direla ondoan eta aldiz, 100 babestuak hurrengo urtera arte ez direla eraikiko.

Udaleko ordezkariak argitu nahi izan dute onarpen honekin ez dela babes ofizialeko etxebizitza hauek erosteko interesa dutenek izena emateko epea irekitzen, etxeak egiteko prest dauden enpresen proposamenak jasotzekoa baizik. •



DBHko
ondorengo
ikasketak
euskaraz
egiteko aukera
bultzatuko dute
Buruntzaldeko
udalek /4-5

KIROLA | 2

Ehundaka haur bildu ziren larunbatean Eskola Kirolaren Festan

KIROLA | 2

Gipuzkoako Bolo Txapelketa ospatu zuten igande goizean Michelinen

KIROLA | 3

Mikel Berakoetxeak irabazi zuen sega apustua



ADURIZ DE LASARTE S.A

Loidi kalea 3 • Lasarte-Oria • Tel.: 943 361278



Material elektrikoak Argiak
Etxetresna elektrikoak
TB/Hi-Fi
Instalazio elektrikoak

ELEKTRIZITATEA
ARREGUI

Kale Nagusia 39 • Tel.: 943 361080 • Tel./Faxa: 943 372521 • LASARTE-ORIA



Eskola Kirolaren Festa euripean

- Ehundaka haur eta gaztetxo aritu ziren kirol ezberdinetan
- Eguraldi txarrak ez zuen larunbateko ekitaldia zapuztu

TXINTXARRI

Larunbatean ehundaka haur eta gaztetxok parte hartu zuten Lasarte-Oriako Eskola Kirolaren egunean. Egun osoan eguraldiak lagundu ez bazuen ere, hainbat partida eta proba burutu ziren.

Aurre benjamin mailako txikienetatik, infantil mailako gaztetxoetara ehundaka kirolari bildu ziren larunbatean Michelingo kiroldegi inguruan Eskola Kirolaren festan parte hartzeko. Txikienek lau froga egin zituzten, lokotx bilketa, baloi errea, armiarma eta sokatira. 40 lagun aritu ziren lau taldetan banatuta eta euria ari bazuen ere, ez ziren beldurtu.

Benjamin mailako haurrek bi aukera izan zituzten: futbola eta atletismoa. Lasarte-Oria, Urnieta eta Usurbilgo 60 lagun elkartu ziren pisu jaurtiketa, abiadura eta hezi lasterketa probatan aritzeko eta goizeko lehen orduetan euria barra barra ari zuenez, prestatutako egitaraua aldatu, frontoian beroketak egin eta bertan burutu ziren proba gehienak.

Futboleko aritzeko benjamin mailako herriko 52 lagunak bost taldetan banatu ziren eta 10 minutuko launa partidu jokatu zituzten bata bestearen kontra. Partidu guztiak



Mutil eta neska denak elkarrekin aritu ziren larunbatean Eskola Kirolaren festako partiduetan.

euripean baina umore onean jokatu ziren.

Suerte hobea izan zuten futboleko aritu ziren alebin mailako haurrek. Herriko 30 lagun izan ziren Michelingo zelaian eta hiru taldetan banatuta lehiatu ziren: bi Landaberri ikastolakoak ziren eta bat Sasoeta Zumaburukoa. Talde bakoitzak 20 minutuko bi partidu jokatu zituzten, hasieran euripean baina gero giro hobekoarekin. Saskibaloian jokatzeko elkartu ziren 12 lagun hiru hiruren aurka aritu ziren. Junior eta infantil arteko lagunarteko partidu ere jokatu zen. Aipagarria da mutilak eta neskek denak batera aritu zirela. •



Pisua jaurtizten aritu ziren benjamin mailako haurrak.

Lasa bosgarren Gipuzkoako Bolo Sariketan

Michelingo bolatokia ospatu zen (Joxe Zapirain, J.A. Montes eta Jexux Lasak koordinatuta), eta bertan Erregularitatearen Lehiaketako 26 bolo-jokalari onenek hartu zuten parte.

Irabazlea Ceferino Agirre, seguratarra izan zen; bere atzetik Vicente Guerra, zeraindarra. Laugarren eta bosgarren berriz J.M. Intxausti eta Jexux Lasa lasarteoritarra izan ziren, hurrenez-hurren.

Txapelketa goizeko 9etan hasi zen, eta hiru kanporaketa jokatu zituzten.

Azkenik Buruntz-Azpi elkartearen ospatu zuten bazkaria eta bertan egin zuten sari-banaketa. •



Luis Aizpiolea eta Joxe Zapirainek eman zizkieten sariak lehenengo bi jokalariei onenei.

Txema VALLES

Herriko judokak Murtziara doaz berriz

Espero baino emaitza txarra- goak lortu zituzten Lasarte-Oriako judoka gaztetxoek aurreko asteburuan Murtzian jokatu zen Estatuko txapelketan. Bakarka ez zuten podiumik lortu eta domina jaso zuten bakarra Esteban Martinez izan zen. Bere taldea, Euskadiko selekzioa, bigarrena izan zen, eta beraz zilarrezko domina jaso zuten berak bere borrokaldia galdu arren. Dena den, maila onean ari dira herriko judokak eta asteburuan, berriz, beste bi zita garrantzitsu dituzte, batetik Murtzian "lutxa" modalitateko lehiaketa eta bestetik Euskadiko txapelketa Donostian, Altzako kiroldegian.

Murtziara herriko lau judoka abiatu ziren aurreko asteburuan Gorka Aristegi entrenatzailearekin batera. Larunbatean kadeteen txanda izan zen. Ondoren aritu ziren Leire Zubizarreta eta Amaia Curiel, biek zazpigarren postuan amaitu zuten, borrokaldi bat irabazi eta bestea galdu zuten, aukerak izan zituzten baina berriz galdu eta ez zuten finalerara pasatzerik izan. 93koak dira biak 15 urte besterik ez dituzte eta hurrengo urtean berriz aukera izango dute txapelketa honetan.

Igandean infantil mailan, 1994-1995 urteetan jaiotako- en artean Kiara Tobajas oso ondo aritu zen baina lehen borrokaldia galdu eta ez zuen bigarren aukerarik izan. Antzekoa gertatu zitzaion Esteban Martinez-i. Lehen borrokaldia pasa balu aukerak zituen finalean izateko baina galdu eta ez zuen bigarren aukerarik izan. Hala ere Euskadiko taldea bigarrena izan zen herrialdekako sailkapenean eta domina jaso zuten. Emaitzak ez dira beraz bikainak izan baina pozik zen Gorka Aristegi entrenatzailea.

Bi zita

Hurrengo zita ekainaren 7an da Murtzian berriz: "lutxa" deituriko txapelketara Mario Garrido joango da Esteban eta Amaiarekin batera. Bestalde, Euskadiko Txapelketa burutuko da Altzan eta bertan izango da Kiara. Josu Olmorekin batera.

Astean hiru egunetan entrenatzen dira herriko judokak, astelehen asteazken eta ostiraletan eta hurrengo urtean astearte eta ostegunetan alde fisikoak jorratzeko asmoa ere badute. •

XX. Squash saria azken fasean

- Sei jokalarik jokatuko dute liga, ekainaren 14ko finaleko txartelaren bila
- Kontsolazio lehiaketa ere martxan da sailkatu ez diren 13 lagunen artean

TXINTXARRI

XX. Squash txapelketako azken faserako sei jokalarik sailkatu dira eta seieta bi onenek jokatuko dute finala ekainaren 14an polikiroldegiko kantxan. Apirilatik 19 lagun ari dira txapelketa jokatzen.

Sailkatu ez diren 13 jokalariek ere txapelketan segitzen dute: euren artean kontsolazio lehia jokatuko dute, kopa sistema erabiliz, eta beraien arteko finala ere egun berean jokatuko da, ekainaren 14an.

Iñaki Carretero, Alberto Udabe, Aitor Artola, Joxe Martin Arregi, Agustin Erkizia eta Jose Antonio Ramos izan dira Lasarte-Oriako Squash txapelketaren lehen faseko sei onenak eta txapela jokatzeko sailkatu direnak.

Txapeldunen fasea

Txapeldunen fasean, liga sistema erabiliko da berriro, hau da, seiak seien aurka jokatuko dute eta bi onenak finalean izango dira azken orduko aldaketarik ez baldin bada ekainaren 14an. Maiatzaren 30ean, ekainaren 3an, 5ean, 9an eta 10ean squash partida dute beraz sei hauek, eta emaitzen arabera sailkatuko dira bi finalerako.

Txapelketa faserako aukera galdu eta kontsolazio lehiaketan ari diren Serrano, Valles, Franco, Rodriguez, Amiano, Etxaide, Roca, Lara,



Ekainaren 14an jokatuko dira Squash txapelketako final nagusia eta kontsolazioko finala.

Calvo, Lanzeta, Urruzola, Cañedo eta Garciak aukera bat badute oraindik ekainaren 14ko finalean izateko.

Kopa sistema

Kontsolazio fasean, kopa sistema erabiliko da, hau da, kan-

poraketak jokatuko eta irabazleak egingo dute aurrera. Maiatzaren 29an eta ekainaren 2an jokatuko dituzte lehen kanporaketak, final laurdenak ekainaren 4an, finalerdiak ekainaren 6an eta esan bezala finala 14an.

Apirilaren 2an hasi zen txapelketa 19 lagun artean. 15 tantoko bost jokotara lehiatzen dira eta azken sprinean ez dute atsedean hartzeko aukera asko, bi astetan hainbat partida baitituzte herriko squash jokalariek.

Hasi da Santa Anako pala txapelketa

Maiatzaren 26an hasi zen Santa Anako pala txapelketa. Astelehenerik ostegunera bitarteko jokatu dira partidak, hiru egunero. Talde bakoitzeko bikote batek atsedean egiten du aste batez eta gainontzeko sei bikoteek haien artean jokatzen dute. Zazpi jardunaldi daude final laurdenetara iritsi arte.

Astelehenerik lehenengo jardunaldian A taldeko lehen partidari Jose Ramon Alcibar eta Benito del Arco atera ziren garaile. Bigarrena Txema Urrezola eta Eneko Urdanpilletak irabazi zuten eta Jose eta Mikel Begiristainek hirugarrena.

Asteartean, B taldeko partidari Jose Felix Solano eta Mikel Arroyok irabazi zuten lehenengo, bigarrena Imanol Bardaji eta Iñigo Arluziagak eta azkena Jon eta Iñaki Lizasok tanto bakarragatik.

C taldeko partidetak garaileak losu Iparragirre eta Aitor Matxain lehenengo partidari, bigarrenean Eneko Iradi eta Ibon Azkonobieta eta hirugarrenean Carlos Garcia eta Alain Etxebeste izan ziren asteazkenean. D taldeko partidak osteguneko jokatu ziren, asteko azkenak eta irabazleak Ion Pagola eta Jesus Ferreira izan ziren lehenengoan tanto batengatik, bigarrenean Xabi Etxezarreta eta Mikel Bardaji eta azkenekoan Shanti Martin eta Bernaitz Odriozola.

Talde bakoitzeko lehenengo biak jokatuko dituzte final laurdenak uztailearen 14 eta 15. egunean. Finala uztailearen 26an jokatuko dute sailkatutakoek Santa Ana egunean.

Berakoetxea nagusi sega apustuan

Mikel Berakoetxeak irabazi zuen igandean Andoni Monge *Futxiren* aurkako sega apustua. Biak Buruntz-Azpi elkarteko kideak dira eta atzo goizean Kaxkarro inguruko zelaietan jokatuko zuten desafioa. Ordu bete belarra moztzen eta beste ordu erdi batu-pisatzen aritu ondoren, Berakoetxearen talde urdineko lagunek 2.238 kilo belar bildu zituzten eta *Futxiren*ek aldiz, 1.875 kilo, 363 kilo gutxiago. Giro bikaina izan zen zelaian eta baita ondoren 60 lagunek *Txixardin*en egin zuten bazkarian ere, trikitixa eta txalapartarekin. Pilar Aburuza *Futxiren* amak jantzi zion txapela Mikel Berakoetxe irabazleari.



Arg.: Txema Valles



ERDI ETA GOI MAILAKO ZIKLOETAN AURRE Matrikultatzekeo EPEA, EKAINAREN 2TIK 13RA LUZATUKO DA

Zer ikasi? Ikasleen une erabakigarria

Irailetik aurrera hezkuntza ziklo berri bati ekingo diotenez zer egin erabakitzen ariko dira honez gero. Besteek, argi izango dute. Batzuentzat zein besteentzat, ekainaren 2tik 13ra zabalik izango da erdi eta goi mailako zikloetan aurre matrikultatzekeo epea. Urrietako Salesiar ikastetxeke zuzendari Mikel Ormazabalak zehetasun gehiago ditu.

2008-09 ikasturteak oro hor zer nobedade dakartzatza?

Mikel Ormazabal: Une honetan, transizio egoeran gaude, Lanbide Heziketan titulu berriak ateratzekotan baitira. 1200 eta 1400 ordukoak diren Erdi Mailako ziklo batzuk 2000 ordutara pasatzera doaz. Baina aldatzeko atzerapen handiz datoz. Bospasei ziklo aldatu dira baina ikasturtean zehar aldatzeko asmatan gabiltza. Bestalde, Lanbide Heziketako lege berria aterata da eta horrek ikastetxe egitura desberdinak eskatzen ditu. Eusko Jaurilaritza, ikastetxeen sailkapen hori nola burutu, lege barmean nola txertatu lan-tzen ari da.

Aniztasun handiago dago eskaintzan. Aior teknikoak kanpo dauden titulazioek zer moduko harrera dute?

M.O.: Une honetan, gehien jaitziko diren titulazio administrazio alorrekoak izango dira, ez baitute arrakastarik izan. Ez dago horren beharrik. Berriz, ziklo industrialei eman behar zaie erantzuna. Hor izugarriko kezka dago. Une honetan lan munduak eskatzen dituen teknikari kopurua betetzeko gai ez gara, ikasle faltagatik.

Matrikulazioari begira, zer nolako aurreikuspenak beraz?

M.O.: Ikasleen kopurua jaitziko da. Kezka asko dago ikastetxeetan. Ikastetxeen eta irakasleen etorkizuna hor dago. Kanpora begira, enpresek behar dituzten teknikari erantzunik ez zaie ematen. Unibertsitateak ere jendea nahi du, baina ikasle gutxiago dago. Lehia dago Lanbide Heziketa eta Unibertsitatearen artean.

Datozen urteetan ikasle faltak bere horretan jarraituta, ondorioak kezkarriak izan daitezke?

M.O.: Bai. Lau urteetan izango da. Lanbide Heziketako



Lanbide Heziketan titulu berriak sortzekotan dira.

Une honetan lan munduak eskatzen dituen teknikari kopurua betetzeko gai ez gara, ikasle faltagatik

ikasle txikiak ez dute zuzeneko erantzunik. Berriz, ziklo industrialei eman behar zaie erantzuna. Hor izugarriko kezka dago. Une honetan lan munduak eskatzen dituen teknikari kopurua betetzeko gai ez gara, ikasle faltagatik.



Matrikulazio kopurua jaitzeak kezka eragiten du.

eskaintzeko borondatea, nahia eta helburua dugu. Ikasle guztiak ikasketak euskaraz egitea eskatzen dugu, euskaraz emango litzateke. Baina une honetan, ez da halakorik gertatzen eta gelak osatzeko ikasle kopurua oso murrizta da. Hemendik 2012 arte, ikasle kopurua bai baxilergoan zein Lanbide Heziketan oso txikia izango da. Lehen Derrigorrezko Hezkuntzan izandako ikasle krisialdia, orain etorri zaigu etapa hauetara. Horrek eredu bakkarra jartzea ekarri digu, B eredu nahiko sakona. Ikastetxeok ahal dugun ikasleei ahal dugun neurrian erantzuna euskaraz eman nahi diegu. Agian gehiago egin beharko genuke, baina horretarako ere malgutasun handirik ez dugu.

BURUNTZALDEAREN KANPAINA BERRIA

"Aukera ezazu, aukera gehiago eta hobek izan ditzazun" lelopean aurkeztu dute Buruntzaldeko udaletako euskar batzordeek Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza ondorengo ikasketak euskaraz egitea bultzatzeko kanpaina. Batxilergo edota Erdi nahiz Goi Mailako zikloetako eskaintzaren batean matrikulatzen doazen ikasleei zuzendutako ekimena da, aurrekoetan ez bezala hezkuntza etapa honetan D ereduaz eta baita nagusi gaur egun. Zikloetan aurre matrikultatzekeo epea ekainaren 2tik 13ra izango da.

teratzea, hitzarmen bidez enpresekiko hartu eman estua lortzea, ikastetxeetako ingeniariaren birziklatzea enprestan egitea, ikasleek kontratu bidez lana eta ikasketak uzartzea...




Matrikulazio garaia badator. Zuegan da on ikasle berri hori zer esan?

M.O.: Gustuko duena aukera dezala, baina ikusi baita ere gustuko duen titulazio horrek zer irtenbide profesional dituen. Ondu pentsa dezala zer egin nahi duen. Lanbide Heziketan aukera handiak daude. Asko lantzen ari gara ikasleen sormena. Meretz du, lan mundurako oso ondo prestatzen du.

DBH eta Batxilergoekin alderatuta, jaitzi egiten da zikloetan euskaraz matrikulatzen diren kopurua. Zer moduan interpretatu behar da hori?


M.O.: Lanbide Heziketako ikastetxeok guztia euskaraz



Euskaraz ikasteko aukerak Buruntzaldean 2008-2009 ikasturtea

Erdi-mailako heziketa-zikloak	Ikastetxea	Herria
Ekipo eta instalazio elektrotrekoak	Hernani BHI - Santa Barbara auzoa, z/g - 943 551 188	Hernani
Mekanizazio		
Administrazio kudeaketa		
Mekanizazio		
Ekipo eta instalazio elektrotrekoak	Ursulb GLEH - Arbizta bidua, 29 - 943 364 600	Ursulb
Makineria eta linea erordibideen instalazio eta mantenimendua elektrotrekoak		
Hitz, gitarra eta baxa sortzeko instalazioen mantentzea eta mantenimendua		
Markatutza (B)	La Salle-Berrippe ikastetxea - La Salle etorbidea, 5 - 943 590 557	Andoain
Makineria eta linea erordibideen instalazio eta mantenimendua elektrotrekoak (B)	Jose Langile Deuna Salesiar Ikastetxea - Ergoien auzoa, 6 - 943 551 789	Urneta
Ekipo eta instalazio elektrotrekoak (B)		
Makineria eta linea erordibideen instalazio eta mantenimendua elektrotrekoak (B)		
"B" Epean ikasgaiak zein hizkuntzan ematen diren ikastetxe bakoitzan gaitzetsa konerri da		
Ursulb GLEHn eta Hernani BHIen eskaintzen da Goi Mailako Heziketa Zikloetarako sardide probaren Kasirara D ereduak.		
Goi-mailako heziketa-zikloak	Ikastetxea	Herria
Mekanizazio tekniko produktiboa	La Salle-Berrippe ikastetxea - 943 590 557	Andoain
Gazte integratzailea	Leizorran BHI - Plazaola kalea, 23 - 943 300 078	Andoain
Enfatuak	Zine eta bideo eskola - Ama Kandelak - 943 594 190	Andoain
Proiektu mekanikoen garapena	Hernani BHI - Santa Barbara auzoa, z/g - 943 551 188	Hernani
Instalazio elektrotrekoak		
Administratzailea eta finantziak		
Mekanizazio tekniko produktiboa	Ursulb GLEH - Arbizta bidua, 29 - 943 364 600	Ursulb
Enfatuak eta kontrol sistema automatizatuak		
Erakiri eta prozesu instalazioen mantenimendua eta mantentzea		
Teknikariaren prestakuntza		
Administratzailea eta finantziak (B)		
Produktu elektronikoen garapena (B)		
Enfatuak eta kontrol sistema automatizatuak (B)		
Instalazio elektrotrekoak (B)		
Argitalpen diseinua eta produktiboa (B)		
Arte grafikoen industriarako produktiboa (B)		
"B" Epean ikasgaiak zein hizkuntzan ematen diren ikastetxe bakoitzan gaitzetsa konerri da		
Batzilergoak	Ikastetxea	Herria
Teknologia	Alta Larrañandi Ikastetxea - Teñtzi pasatekua, z/g - 943 593 525	Andoain
Giza eta gizarte zientziak	La Salle-Berrippe ikastetxea - La Salle etorbidea, 5 - 943 590 557	Andoain
Teknologia		
Giza eta gizarte zientziak	Hernani BHI - Santa Barbara auzoa, z/g - 943 551 188	Hernani
Natur eta osasun zientziak	Lasarte-Ursulb BHI - Buena Aires aldea, 1 - 943 372 852	Lasarte-Oria
Teknologia	Jose Langile Deuna Salesiar Ikastetxea - Ergoien auzoa, 6 - 943 551 789	Urneta
Natur eta osasun zientziak		
Giza eta gizarte zientziak	Leizorran BHI - Plazaola kalea, 23 - 943 300 078	Andoain
Teknologia		
Teknologia		
Natur eta osasun zientziak		
Giza eta gizarte zientziak		
Natur eta osasun zientziak (B)	La Salle-Berrippe ikastetxea - 943 590 557	Andoain
"B" Epean ikasgaiak zein hizkuntzan ematen diren ikastetxe bakoitzan gaitzetsa konerri da		

Euskarako planak enpresetan 2004. urtean



Andoain, Astigarraga, Hernani, Lasarte-Oria, Urneta eta Ursulbiko Udaletako Euskarako Batzordeak



IKASTETXEAK
La Salle-Berrippe ikastetxea
Alta Larrañandi Ikastetxea
Hernani BHI
Lasarte-Ursulb BHI
Ursulb GLEH
Ursulb BHI
Zine eta bideo eskola



Ekainaren 2tik 13ra zabalik izango da erdi eta goi mailako zikloetan AURRE Matrikultatzekeo epea

Maketa lehiaketako Lasarte-Oria Saria Gaueko Itzalak taldeak eskuratu du

Lehenengo saria irabazi duen Errenteriako Boogie Van taldeak kontzertua eskainiko du jaietan

TXINTXARRI

Lasarte-Oriako Udalak antolatutako I. Maketa Lehiaketako irabazleen izenak ezagutara eman zituzten lehengo astearte arratsaldean, maiatzaren 27an, Gazteria eta Festak Sailak.

Lehenengo saria Errenteriako "Boogie Van" taldeak irabazi du, 1.000 eurotako diru-saria eramango dute etxera eta gainera kontzertua eskainiko dute uztailearen batean San Pedro jaien itxieran.

Lehenengo sariak gain berezi bat zegoen herriko taldeentzat, Lasarte-Oria saria, eta hau "Gaueko Itzalak" taldearentzat izango da.

Musika estilo desberdinetako maketak aurkeztu dira lehiaketara, guztira hogeita lau pop, rock, DJak edo kantautoreak adibidez. Parte hartzaileetako hamazazpi eskualdekoak dira eta horien artean bi Lasarte-Oriakoak.

Gehienak kanpokoak

Hala ere, lehiaketa irekita zegoen nahi zuen guztiak parte hartzeko eta Bartzelona, Madril, Valentzia, Malaga, Granada, Zaragoza eta Tarragonako taldeak aurkeztu dira. Epaimahaia musikako kritikariek, irriti esatariek eta musikaren munduan adituak diren bestelako pertsonak osatu dute. •



Jesus Zaballosek, Udaleko Gazteria eta Festak Saileko buruak asteartean banatu zituen sariak.



Ezkerreko argazkian, Jalgi emanaldia, Bob, nor da Bob?, eskuinekoan, Joanen ilargia, kulturetxean Nu taldeak eskainitakoa.



Bi antzezlan izan ditugu ikusgai pasa berri den astean

Lehenengo ikuskizuna Jalgi kafe-antzokian izan zen, ostegun iluntzean. Jon Urrazak idatzi, zuzendu eta antzezten duen *Bob, nor da Bob?*, tabernako filosofia antzezlan taularatu zuen. Lan honetan, Jon Urrazak berak, lagun koadrila baten ligatzearen gora-beherak azaldu zituzten. Bien artean koadrila horretako hainbat lagun aurkeztu zituzten.

Bigarren lana berriz, larunbatean eskaini zuen Nu taldeak kulturetxean. Haurrentzako antzerkia da *Joanen Ilargia*. Bertan aita gaixorik jarri zaion umearen istorioa kontatzen dute. Joanen aitak osasuna galdu du itsasoan, eta bera, ilargiaren laguntzarekin, itsasora joango da aita-ren osasunaren bila. •

Txintxarri diruz laguntzen duten erakundeak



Lasarte-Oriako Udala
Euskarako Batzordea



EUSKO JAURLARITZA
KULTURA SAILA

Argitaratzailea: Itakun Kultur Elkarte, Geltoki kalea 4, 20160 Lasarte-Oria, 943 366858, G-20407557 • Legezko gordailua: SS513/93 • ISSN: 1134-0053 • Inprimategia: Zeroa Multimedia, S.A. Aleak zenbakiko: 7.300 • Erredakzioa: txintxarri@itakun.com • Publizitatea: publizitatea@itakun.com • Administrazioa eta banaketa: administrazioa@itakun.com; itakun@itakun.com.

Txintxarrik ez du bere gain hartzen iritzi-artikuluetan eta irakurleek bidalitako gutunetan adierazitakoaren erantzukizunik.

Egunero

Erakusketa

SAHARAR KANPAMENDUETAKO ARGAZKIAK ikusgai Sahararen lagunak elkartean eskutik. Jalgi kafe-antzokian, egun osoan.



Erakusketa

JOSE MANUEL MONGE margolariaren ikasleen lanak erakusketa aretoan ikusgai astelehenetik ostiralera. Manuel Lekuona kulturetxean, 18:00etatik 21:00ak arte.

Astearte, 3


Hitzaldia

KATXALIN bularreko eta ginekologi minbizien elkarteak antolatutako hitzaldia dohain. Manuel Lekuona kulturetxean, 19:00etan, GAZTELANIAZ.

Larunbata, 4

Hitzaldia

Alergien inguruko hitzaldia antolatu du KIUBek. Manuel Lekuona kulturetxean, 18:00etan.



Oroituz, memoria historikoa berreskuratzeko solasaldia

Oroituz taldeko bi ordezkari etorriko da Jalgira hitzaldia eskaintzera. Oroituz taldea, memoria historikoa berreskuratzeko taldea da. Andoainen 36ko gerran, galtzaileen bandoan suertatu zirenen bertsioa azaleratzen saiatzen da

Gotzon Garmendiak, Oroituz taldearen zereginak, ibilbidea azalduko dizkigu. Xabier Lasak, Andoainen egindako lanaren ondorioz liburua idatzi zuen, "Ahozko Historia: Oroimenean Lokartutako ahotsa". Liburuaren xehetasunak azalduko dizkigu.

OSTEGUNEAN, 21:30EAN
JALGI KAFE-ANTZOKIAN
EUSKARAZ

Ostirala, 6

Bakarrizketa

KIKE BIGURIEN eskutik bakarrizketa. Paramount Comedy eta Club de la comediako kidea da Kike. Udaberri tabernan, 22:00etan.



Igandea, 8

Dantzari Eguna

XX. DANTZARI TXIKI EGUNEAN parte hartuko dute Legazpi, Sestao, Urretxu, Errenteria, Flatzes, Lesaka eta Lasarte-Oriako umeek. Okendo plaza, 17:30ean



Osteguna, 12

Hitzaldia

TREBETASUN SOZIALEN inguruko hitzaldia KIUBen eskutik. Manuel Lekuona kulturetxean, 19:00etan, GAZTELANIAZ.

6. Antzerki Astea

Astelehena 2

19:00etan, "TXORIMALOA" LH-1, 1. taldea.

19:00etan, "ZERUTIK EROKITAKO IZARRA" LH-1, 2. taldea.

19:00etan, "ARGAZKI BIZIDUNAK" LH-2.

Asteazkena 4

19:00etan, "MIMO JOKUAK" LH3.

19:00etan, "PARKEKO ZUHATZA" Zabaletako txikiak.

Ostirala 6

19:00etan, "MUNDU HOBERENAK" LH4.

22:30ean, "GARRAXI IXILAK" Helduen antzerki 1. taldea.

Astelehena 9

19:00etan, "ELURREZKO PANPINA" LH5, 2. taldea.

19:00etan, "AINGERUEN ETA DEABRUEN ISTORIO BAT" LH5, 1. taldea.

Astearte 10

18:00etan, "SUPER-UMEAK" LH6.

18:00etan, "ITSUAK" Zabale-tako gaztetxoak.

Asteazkena 11

19:00etan, "LANDABERRI IKASTOLAKO IRRATIA" DBH1-2, 1. taldea.

19:00etan, "GURASOAK" DBH1-2, 2. taldea.

Osteguna 12

19:00etan, "LOTSAGABEAK" DBH3-4.

Oharrak

Gizarte Zerbitzuen Departamentuaren oharra

Gizarte Zerbitzuen Departamentuak gizarte-ongizatearen alorrean lanean dharduten erakunde eta elkarte guztiei jakinarazten die zabalik dagoela Gizarte Zerbitzuen Departamentu honek eman ohi dituen dirulaguntzak eskuratzeko eskariak aurkezteko epea. Horretarako eskariak Udaltzeko Erregistro Oroko-rean aurkeztu behar dira (9:00etatik 13:00etara bitartean), eskatutako agiriekin batera (Memoria, Gastuen Justifikazioa eta Jardueren Proposamena). Maiatzaren 5etik 30era aurkeztu daitezke eskariak.

XXXI Mus Txapelketako finaleko afaria

Lasartearra elkarteak ekainaren 7an izango den XXXI. Mus Txapelketako finaleko afarirako izena emateko epea zabalik dagoela jakinarazi nahi die bazkide eta lagunei.

Interesatuak, elkartetik pasa behar dute eta izena emateko azken eguna ekainaren 4a izango da.

Glotodidaktika ikastaroa

Euskara irakaslea izan nahi dutenentzat, Antiguako AEK euskaltegian glotodidaktika ikastaroa antolatu dute. Euskara irakasteko oinarriko prestakuntza emango da ikastaroan ekainaren 30etik uztailearen 24ra bitartean. Informazio gehiagorako, deitu 943327172 telefonora (Gipuzkoako AEK). Ikastaroan aprobetxamendu ona izanez gero, eta homologaziorako baldintzak betez gero, AEKren lan poltsan izateko aukera izango duzu.

Larrain dantza ikasteko saioak

Herriko festak aitzaki hartuta, Xiberuko zenbait polka, eta Larrain dantza ikasteko saioak antolatu dira. Edonork hartu dezake parte ekimen honetan.

Entsaioak Erketzen lokalean egingo dira. Ekainak 6, 13, 20 eta 27an. Izen emateak Ttaku-nen (943 371448).

Maria Auxiliadora elkartearen irteera

Ekainaren 15erako antolatu du Lasarte-Oriako Maria Auxiliadora elkarteak irteera. Lehenengo Segurara joango dira, gero Zumarragako Antiguako ermita ikusiko dute eta ondoren Oñatin bisita gidatua izango dute. Arantzazun bazkaldu eta gero, Arrikruz koba bisitatuko dute arratsaldean. Izena eman nahi duenak ondoko bi telefono hauek deitu behar du: 943 363675 eta 943 360042.

Usurbilgo Lanbide Eskola

Gure eskolan aurrematrikula egiteko epea ekainaren 2tik 13ra irekita izango da.

Kartel lehiaketa

Durangoko Azokako 43. edizioa prestatzen hasi dira eta

kartela aukeratzeko lehiaketa martxan dagoela gogorazari dute antolatzaileek. Ekainaren 27an amaituko da lanak aurkezteko epea. Informazio gehiago behar izan ezkeru www.durangokoazoka.com helbidean parte hartzeko oinarriak aurkituko dituzue.

Ostadar K.F.k egoitza berria izango du

Ostadar Kirol Fundazioa egoitzaz aldatzen da astelehenetan. Geltoki 2ko lokala utzi eta ekainaren 2tik aurrera geltoki 25.zenbakian izango dira. Beraz, astelehenetik aurrera Michelingo kirolgunetik gertu, Iparragirre zapata denda zen lokalean, izango dira aurrerantzean.

Futbol Eskola

Ostadarreko Futbol Eskolan izena emateko epea bihar zabaldu eta 20ean amaituko da. Izen-ematea Ostadarreko lokalean egin behar duzue, Geltoki 25. Zenbakian,

19:00etatik 20:00tara. Eskola 8,9 eta 10 (2000, 1999, 1998) urte duten haurrei zuzenduta dago.

Sorgin dantzaren entseguak hasiko dira

San Pedro jaietako Sorgin dantzako desfilea prestatzeko asmoz, ekainaren 3an hasita astearte eta ostegunero entseguak egingo dira Landaberri BHI ikastolan arratsaldeko 20:00etatik 21:00ak bitartean. Komenigarria da ekitaldian parte hartu nahi duzenok entseguetara joatea. Beraz, aurreko urteetan parte hartu baduzue ere, eta Sorgin dantza ongi dantzatzen baduzue ere, antolatzaileek entseguetara joatea eskatu nahi dizute.

Oharrak jartzeko:

Tel.: 943 366858
txintxarri@ttakun.com
Geltoki kalea 4, behe

Jai giro bikaina asteburu osoan Zabaletako jaietan

■ Tellerigain taldea nagusitu zen proba mixtoan
 ■ Denetarik izan da, haur, gazte eta helduentzat

JON ALTUNA

Eguraldi txarra ez da oztopo izan Zabaleta auzoko jaietan eta auzotarrak giro bikainarekin egin diote aurre asteburu osoan eguraldi kaxkarrari. Atzeratu den ekitaldi bakarra larunbat arratsaldean Hipo eta Tomax pailasoen emanaldia izan zen, baina irailan etorriko direla hitzeman dute. Larunbatean haurrak izan ziren protagonista egunez. Eguerdian ateraldia lagun ederki ibili ziren puzgarrietan eta opari bana jasota etxeratu ziren. Arratsaldean, bertsolariak saio bikaina egin zuten. Haste-ko oholta gaineratik, Andoni

Otamendiren gaiei erantzunez, ederki aritu ziren Amaia Agirre, Gaztelumendi anaiak eta eskolarteko txapeldun izan ondoren Zabaletara hurbildu zen Ane Labaka. Ondoren jende artera hurbildu eta dantzari jarri zituzten bertan zeudenak Aita Semeak doinuak erabiliz.

Ondoren gazteen ordua iritsi zen. Goizera arte luzatu zen kontzertua: Lehenengo Odolaren Mintzoa boskotea aritu zen eta ondoren maketa lehiaketa irabazi duen Gaueko Itzalak herriko taldea.

Eta igandean ere egun guztiko egitarau zabalak: Goizean Joxan Telleriaren bi idi pareren arteko dema, 39-38, plaza baten alde estuarekin amaitu zen. 1.500 kiloko harria erabi-

li zuten eta idiak eramaten Euskal Herriko emakumezko bi itzain bakarrak izan ziren, biak oiartzuarrak, Amalur bere senar Josurekin eta Izarraitz Joxan Telleriarekin. Azken hauen idi pare nagusitu zen alde txikiarekin.

Proba mixtoan Tellerigain nagusitu zen 8'32" denborarekin. Hogei segundura, ia batera, iritsi ziren beste bi taldeak, Erkide Etxea eta Larrekoetxe Ostadar. Trontzan, txingak eramaten, lokotxak biltzen eta korrika egin zuten hiru aldiz bost lagunez osatutako taldeek. Txan magoa, karta eta toka txapelketak, batukada, dantza, musika, antzerkia,... denetarik izan da, umore onean eta euskal giroan burutu diren Zabaleta auzoko festatan. •



Labaka, Agirre eta Gaztelumendi anaiak aritu ziren Otamendiren esanetara.



Gaueko Itzalak herriko rock taldekoek goizera arte luzatu zuten kontzertua.



Omenaldi hunkigarria Joxe Migel Aranzadiri.- Zabaletako ekimenetan zein festatan esku hartze zuzena izan ohi zuen Joxe Migel Aranzadi, iaz hil zen auzotarrari, omenaldi beroa eskaini zioten igande arratsaldean. Bere sendiaren aurrean, txalaparta doinuak, aurraskua, bere lagun Antton Garinen bi bertso hunkigarri eta beste bertso sorta musikatu bat eskeini zizkieten. Alargunak opari eta lore sorta jaso ondoren eskerrak eman eta Joxe Migel horrelako lagunak izateaz harro zegoela eta egongo dela esan zuen.



Telleria eta Izarraitz dema irabazi zuten Korbo eta Rubio idiei tiraka.



Lasarte-Oriako hiru talde aritu ziren proba mixtoan. Telleri-gain irabazle.

PAINTBALL.

USURBILEN!

WWW.PUELABERRI.COM

AUSARTZEN ZERA? BA DEITU ZENBAKI HONETARA 661-568-441